

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren ebazpenaren laburpena. Erabaki horren bidez, Kanpezuko administrazio batzarren 2021eko funtzionamendu gastu orokorrak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia onetsi zen

DDBN(Identif.): 558302

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnts-trans/GE/es/convocatoria/558302>).

Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udalerriko administrazio batzarrek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, baldin eta zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean badituzte.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen helburua da Kanpezuko udalerria osatzen duten herrietako funtzionamendu gastu orokorrak eragindako gastuak ordaintzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arauak

Korporazioko udalbatzak 2021eko otsailaren 23an onetsiak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Hauak izango dira, gehienez, administrazio batzarreko emango diren dirulaguntzak:

Gastu orokorretarako 2021erako emandako zenbatekoa: 15.000,00 euro; horietatik, ehuneko 60 linealki banatuko dira erakunde guztien artean, eta gainerako 40a urtarrilaren 1ean herrigune bakoitzak dauzkan biztanleen arabera.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Dirulaguntza eskaera eta gainerako agiriak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 29an bukatuko da, egun hori barne.

Santikurutze Kanpezu, 2021eko apirilaren 19a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO